



Usaimena



Ikusmena



Dastamena



Entzumena



Ukimena



Ukimena

Ukitzen ditugun gauzak sentitzeko balio digu. Zentzumen honi esker, leuntasuna, tenperatura, gogortasuna... antzematen ditugu. Ukimenaren organoa larruazala da. Bertako nerbioei esker informazioa garunera bidali eta bertan interpretatzen da.

Ukimena



Usaimena



Ikusmena



Dastamena



Entzumena

Usainak antzematen dituen zentzumena da. Bere organoa sudurra da. Bertan kokatutako mukosei esker, usainak bildu eta, nerbioen bidez, garunera bideratzen dira, interpretatu ahal izateko. Gure garunak esaten ditu zein usain den.

Usaimena

Inguruan dagoena ikustea ahalbidetzen digu. Begia da ikusmenaren organoa. Begien bidez, objektuen forma, tamaina eta zein distantziatara dauden nabaritu dezakegu. Begiak argia detektatzen du eta garunera bidaltzen du informazioa, han interpretatu eta berrezagutzen dira objektuak.

Ikusmena

Janarien zaporeak bereizten dituen zentzumena da.

Zaporeen sentipenak mihian kokatutako papilen bidez jasotzen ditugu, horiek kinada bihurtzen dituzte, eta nerbioen bidez garunera bidaltzen dira. Elikagaiak gozoak, garratzak, mingotsak edo gaziak izan daitezke.

Dastamena

Entzutea ahalbidetzen duen zentzumena da. Belarria da bere organoa. Gure buruaren barnean kokatzen da eta hiru zatitan banatzen da: kanpo belarria, erdiko belarri eta barne belarria. Ondoren entzumen nerbioak informazioa garunera bidaltzen du, interpretatzeko.

Entzumena